



berdindu!

Lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualen arretarako euskal Zerbitzua

Servicio vasco de atención a lesbianas, gais, trans, bisexuales e intersexuales

BERDINDU ZERBITZUA

URTEKO MEMORIA



URTARRILA-ABENDUA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



AURKIBIDEA

ARRETA PERTSONALA	3
SARRERA	4
ARRETEEN LABURPENA	5
ERABILTZAILE GUZTIEI EGINIKO ARRETA	6
URTEKO ARRETA GUZTIAK	6
ERABILTZAILE MOTA	7
FAMILIAK	9
ADINA	10
ERABILTZAILEAREN JATORRIA	11
KONTSULTAREN JATORRIA	11
KONTSULTA MOTA	12
KONTSULTA ESANGURATSUAK	15
KONTSULTAREN KOMUNIKAZIO BIDEA	16
ZERBITZUA EZAGUTZEKO MODUA	17
ESKOLA ARRETA	18
BERDINDU ESKOLAK ZERBITZUAK	19
IRAKASLEAK - FORMAKUNTZAK ETA AHOLKULARITZAK	19
IKASLEEN FORMAKUNTZAK	23
FAMILIEN FORMAKUNTZAK	24
BESTE INTERES TALDE BATZUK	25
KOORDINAZIO ARLOAREN MEMORIA	26
BERDINDU ERABEREAN SAREAN	28
KOMUNIKABIDEA: WEB GUNEA	30
2023AN BERDINDUKO WEBGUNEAN EGINDAKO EDUKI EGUNERATZEAK	31
BERRIAK	31
AGENDAN GEHITUTAKO EKITALDIAK	33
SARE SOZIALEN URTEKO MEMORIA	35
ARGITALPENAK	36
ESTATISTIKAK	38
INTZIDENTZIAK	39



BERDINDU ZERBITZUA

ARRETA PERTSONALA



SARRERA

Memoria hau bat dator Berdindu Zerbitzuak 2023an egindako lanarekin. Laugarren urtea da zerbitzuak egungo formatuan arreta eskeintzen duela, eta lehena COVID-19ari lotutako osasun-egoera erabat normalizatuta egon dena.

Memoria honek zerbitzuaren jarduera-multzoa jasotzen du, bikoitza dena: arreta pertsonala eta formakuntza (ikasleentzako, irakasleentzako, interes estrategikoko sektoreentzako tailerrak...). Memoriaren hasierako kapituluak lehenengo jarduera-mailari (arreta pertsonala) erreparatzen dionez, komenigarritzat jotzen dugu hurrengo zehaztapenak egitea:

- Aurtengo kontsultak legedian egindako aldaketen eraginpean egon dira. Izan ere, *Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legea* onartu ondoren, desinformazioagatik eta erregistroetako kolapsoagatik sortutako eskaerak ugariak izan dira. Legearen 50. artikulua zehazgabetasunak —atzerriartasunaren inguruan aritzen dena— ziurgabetasun handia eta zailtasun ugari sortu dizkie LGTBIQ+ kolektiboko pertsona atzeritarrei. Bestalde, Erregistro Zibilen antolakuntza ezak, alde batetik atzerapen handiak eragin ditu hitzordua hartzeko orduan, eta bestetik trans pertsonen arreta desegokia ematea ere. Zorionez, arazo horiek konpontzeko bideak pixkanaka garatu dira.
- Egindako kontsulta kopuruari dagokionez, ohiko datuak berreskuratu egin dira, aurreko urtean jasandako beherakadaren ondoren. Hazkunde honen arrazoa, funtsean, jarraipen-arreta gehiago eskatu direlako izan da.
- Ohiko kontsultez gain, zenbait berezitasun dituzten eskariak jaso dira, dagokien atalean zehaztuko direnak (*kontsulta esanguratsuak*).
- Amaitzeko, memoriaren planteamenduari dagokionez, bakarrik kontsulta berrien datuak kontuan hartzen dituen txosten bat dela esan behar da; hau da, urtean lehen aldiz zerbitzuarekin harremanetan jartzen diren pertsona edo erakundeei buruzkoa. Agerikoa da eskaera batzuk jarraipen bat behar dutela, edo pertsona batzuk hainbat aldiz zerbitzura jotzen dutela. Eskaera horiek jarraipen-kontsulta gisa katalogatuta daude, eta bi ataletan baino ez dira jasotzen: kontsulta-tipologia eta kontsulta-bidea. Irizpide hori hartu zen, urtean zehar zerbitzura jo duten erabiltzaile guztien ikuspegi errealista lortzeko modurik onena dela kontsideratu baitzen.
- Aztertuko ditugun kategoría desberdinetan agertzen diren datuak bat datoz hiru Lurralde Historikoetan artatutako kontsulta guztiekin. Horrek esan nahi du, nahiz eta atal bakoitzean deskribatutako gidalerroak antzekoak izan, ehunekoen banaketa lurraldeen artean ez dagoela guztiz orekatua.



ARRETEK LABURPENEA


		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	%
ARRETEK GUZTIRA	LEHENENGO KONTSULTA	106	191	147	444	%61
	JARRAIPENA	113	61	107	281	%39
	GUZTIRA	219	252	254	725	%100
LEHENENGO KONTSULTA						
ERABILTZAILEREN MOTA	PERTSONAK	58	127	84	269	%61
	ENTITATEAK	48	64	63	175	%39
	GUZTIRA	106	191	147	444	%100
PERTSONA ERABILTZAILERAK	EMAKUME ZISEXUALA	13	37	27	77	%29
	EMAKUME TRANSEXUALA	9	33	11	53	%20
	GIZON ZISEXUALA	12	21	25	58	%22
	GIZON TRANSEXUALA	4	31	15	50	%19
	BESTELAKO GENEROA(K)	7	2	2	11	%4
	ERANTZUN GABE	13	3	4	20	%7
	GUZTIRA	58	127	84	269	%100
FAMILIAK	GUZTIRA	7	25	15	47	%100
ADINAREN ARABERAKO KONTSULTA KOPURUA	<11 URTE	0	0	0	0	%0
	12/18	3	5	3	11	%4
	19/30	22	23	28	73	%27
	31/44	5	35	17	57	%21
	45/64	5	29	11	45	%17
	>65	1	2	2	5	%2
	E.G.	22	33	23	78	%29
	GUZTIRA	58	127	84	269	%100
MIGRATZAILERAK	GUZTIRA	12	19	26	57	%100
KONTSULTAREN JATORRIA	ARABA	93	2	2	97	%22
	BIZKAIA	2	165	6	173	%39
	GIPUZKOA	2	6	129	137	%31
	BESTE BATZUK	3	1	2	6	%1
	E.G.	6	17	8	31	%7
	GUZTIRA	106	191	147	444	%100
KONTSULTA GUZTIAK						
KOMUNIKATZEKO BIDEAREN ARABERAKO KONTSULTA KOPURUA	PRESENTZIALA	64	55	71	190	%26
	TELEFONIKOA	71	131	95	297	%41
	POSTA ELEKTRONIKOA	61	47	64	172	%24
	SARE SOZIALEK BIDEZ	20	4	20	44	%6
	BIDEOKONFERENTZIA	0	1	0	1	%0
	BESTE BATZUK	2	0	4	6	%1
	E.G.	1	14	0	15	%2
	GUZTIRA	219	252	254	725	%100



ERABILTZAILE GUZTIEI EGINIKO ARRETA

URTEKO ARRETA GUZTIAK

KONTSULTA



1. KONTSULTA	444
JARRAIPENA	281

Berdindu Zerbitzuak, 2023an zehar, 725 eskari edo kontsulta artatu ditu. Horien %61a (444) lehen aldiz zerbitzura joaten diren pertsoneri egindako kontsultei dagozkie, eta %39a (281) jarraipen-arretei. Kontsulta berrien eta jarraipenen arteko desoreka hori ez da berdina izan Araban, jarraipen-kontsultak gehiago izan baitira.

Jarraipen-arretatzat hartzen dira denboran behin baino gehiagotan harremanetan jartzen diren pertsoneri eskaintzen zaizkienak. Arrazoiak askotarikoak izan daitezke:

1. Berehalakoak ez diren tramiteak edo informazio-bilaketak egitea eskatzen duten eskaerak.
2. Hainbat unetan arrazoi desberdinengatik joaten diren pertsonak.
3. Laguntza behar duten pertsonen egoera emozionalak.


Oro har, eta 2022ko datuekin alderatuta, urtean zehar artatutako eskaeren kopuruak gora egin duela ikus daiteke (648-725), bereziki Araba eta Gipuzkoan. Igoera honen zergatia ez da kontsulta berriak gehitu direlako, baizik eta "Jarraipen" kontsuluten eskaria handitu baita, aurten artatutako kontsuluten izaera propioagatik. Hazkunde orokor hau ez da homoginoa izan, urteko bigarren seihilekoan eskari berriek behera egin baitute, batez ere Araban eta Bizkaian, azken honetan neurri txikiago batean.



ERABILTZAILE MOTA


Jarraian datozen ataletan jasotzen diren datuak, urtean zehar **zerbitzura lehen aldiz etorri diren** pertsona edo erakunde kopuruaren (444 arreta) arabera kalkultzen dira. Estatistika-irizpideek horrela egitera garamatzate, baina gogorarazi nahi dugu kontsulta berriak zerbitzuak eskaintzen dituen arreta guztien %61 baino ez direla.

ERABILTZAILEAK




PERTSONAK	269
ERAKUNDEAK	175

ERABILTZAILEAK



EMAKUMEA	130	BESTELAKO GENEROA(K)	11
GIZONA	108	E.G.	20

ERABILTZAILEAK



EMAKUME ZISEXUALA	77	% 29	GIZON TRANSEXUALA	50	% 19
EMAKUME TRANSEXUALA	53	% 20	BESTELAKO GENEROA(K)	11	% 4
GIZON ZISEXUALA	58	% 21	E.G.	20	% 7

Ikus daitekeenez, kontsulta gehienak (%61) pertsonen egin zaie, eta %39a erakundeei. Desoreka hori orokorra da lurralde guztietan, eta iazkoaren oso antzekoa da.



Entitateak. - Aurten zerbitzuarekin harremanetan jarri diren erakundeen jarduera-eremua nahiko heterogeneoa da. Honako hauek nabarmentzen dira, hurrenkeran:

- **Ikastetxeak.** - Bulegoekin harremanetan jartzen dira hurrengo eskariak egiteko: prestakuntza-tailerrak (ikasleak/irakasleak) eta kasu zehatzetarako aholkularitza eskatzeko, batez ere sexu/genero-identitateari lotutakoak (aurrerantzean, SGI). Eskara dagokion bulegoan jaso ondoren, Berdindu Eskolak zerbitzura bideratzen da, hurak behar bezala kudeatzeko.
- **Hainbat erakunde.**- ZEHAR Errefuxiatuekin, Gipuzkoako eta Arabako espetxeak, Gizarte Zerbitzuak, Gurutze Gorria, Osakidetza, Berritzegunea... erabiltzaile partekatuei arreta emateari (asilo-eskaerak) edo beste erabiltzaile batzuei aholkularitza emateari buruzko eskaerak. Azken kasu horretan, eskariak SGIari lotuta egon ohi dira gehienbat, eta, neurri handi batean, adingabeei. Nabarmentzea ere bai, egokitzen jotzen dugun kasuetan Zerbitzua bera jartzen dela harremanetan erakundeekin.
- **Gizarte sentsibilizazioa.**- Informazioa eskatzen duten hainbat erakunde, sentsibilizazio-ekimenetan laguntzea. Hona hemen azpimarragarriak:
 - Komunikabideak, bereziki data esanguratsuei buruzko informazioan interesa dutenak.
 - Udalak edo beste erakunde ofizial batzuk, data jakin batzuei buruzko demandak dituztenak (maiatzaren 17a eta ekainaren 28a), komunikatuak, protokoloak edo jarduteko gidak eskatzea...

Pertsonak.- Emakumeek eskaera gehiago egiten dituzte, eta hala gertatzen da lurralde guztietan. Gogoratu nahi dugu “emakume” kategoriak emakume guztiak biltzen dituela, transexualak edo zisexualak izan; gauza bera gertatzen da “gizon” kategoriarekin. Bi kategoria horietan, gainera, gurasoak ere sartzen dira.

Oharra: Argitu nahi dugu, aurrerantzean, "trans" termino generikoa erabiliko dugula testuan termino inklusibo gisa, bere burua bai "transexual" gisa definitzen duten pertsonak, bai "trans" formularekin definitzen dutenak bilduz.


Pixkat gehiago sakonduz gero, emakume zisexualen kopurua trans emakumeena baino handiagoa dela ikusten dugu (%29-%20), eta gizonen ehunekoak antzekoak direla (%21-%19). Azken esaldi horri dagokionez, esan behar da Bizkaian, gainerako lurraldeetan ez bezala, artatutako trans gizonen kopurua handiagoa dela. Oro har, ia erabateko paralelismoa ikusten da gizon eta emakume transen artean.

“Bestelako generoa(k)” kategoriak honako hauek hartzen ditu barne: ikuspegi binaristatik kanpo, gizon edo emakume trans/zis gisa identifikatzen ez diren eta beste identitate batzuetan kokatzen diren pertsonak (ez-binarioak, trans ez-binarioak, queer... besteak beste). Ikus daitekeenez, ehuneko txiki bat da, Arabaren kasuan gehiago agertzen dena.

Oharra: Ez dugu aipatu gabe utzi nahi SGIa identifikatu ez zaien pertsonen %7a.


FAMILIAK

FAMILIAK



FAMILIA KOPURUA	47	AMA	34
AITA	13	BESTE BATZUK	1

ADING. ADINA



<11	10
12-18	30
E.G.	7

Urtean zehar 47 familia artatu dira guztira, hau da, "lehen kontsulta" kategorian artatutako pertsonen %17a. Datu hau, zifra absolutuetan zein ehunekotan, iazkoa (64) baino txikiagoa da. Eskaera gehienak amek egin dituzte, eta, nolahi ere, aurreko urtearekin alderatuta, pixka bat gehitu dira zerbitzura jo duten aitek. Ia kontsulta guztiak seme-alaben identitate eta/edo genero-portaera ez-normatiboei lotuta daude, familia gehienek seme-alaba adingabeak baitituzte.


Egoera desberdinek sortutako zalantza eta antsietateei aurre egiteko aholkularitza-eskaerak dira, edo dokumentu-aldaketarekin lotutako informazioa. Argitu nahi dugu, Familien kategoria markatu arren, legezko tutoreak eta adin nagusiko laguntzaileak ere sartzen direla.



Familia-arreta behar izan duten adingabeen adinei dagokienez, 10 arreta egin dira 11 urtetik beherako adingabeen senideekin, eta 30 arreta 12 eta 18 urte bitarteko adingabeen familiekin. Datu horiei beste 7 famili-arreta gehitu beharko litzaizkieke, atal honetan erregistratu gabe geratu dena kontsulta adin nagusiko seme-alabei zegokielako.

ADINA

Beheko grafiko honetan ikus daitekeen bezala, 19 eta 30 urte bitarteko adin-tarteak zertxobait gora egin du, eta ehunekoak pixka bat behera egin du adin-tarteetan aurrera egin ahala. Erabiltzaileen zati handi baten (%30) adina ezin izan da erregistratu. Batez ere, posta elektronikoz kontaktatu duten pertsonak dira, edo ezaugarri jakin batzuk dituzten pertsonak, haien adina zehaztea zailtzen dutenak.



<11	0	45-64	45
12-18	11	> 65	5
19-30	73	E.G.	78
31-44	57		

19-30 urte. - Oro har, multzo nagusia da. Hala ere, Araban eta Gipuzkoan hala izan arren, Bizkaian ez da berdina gertatzen, bertan garrantzi handiagoa hartzen baitute adin-tarte handiagoek (bereziki 31-44). Dokumentu-aldaketari buruzko zalantzak dituzten edo transexualitateari buruzko gatazka pertsonalak dituzten trans pertsonak egiten dituzte eskaera gehienak. Zerrenda horretan sartzen dira, halaber, asilo-eskatzailak, unibertsitate-lanetarako informazioa behar duten ikasleak, eta, neurri txikiagoan, laguntza-baliabideei, LGTBI taldeei edo data esanguratsuei buruzko informazio-eskaerak.

31-44 urte. - Adin-tarte honetako eskaera gehienak gurasoak dira, SGIari lotuta daudenak (zalantzak, aholkularitza, dokumentuak aldatzea...). Zerrenda honetan sartzen dira, gainera, asilo-eskatzailak eta filizazioari eta familia-eraketari buruzko informazioa eskatzen duten emakume lesbianak.

45-64 urte. - Gehienbat, seme-alaben genero-identitateari eta/edo sexu-orientazioari buruzko zalantzak dituzten gurasoak.

Adingabeei (12-18) egindako arretei dagokienez, esan behar da kopuruak behera egin duela iazko datuekin alderatuta, eta ia guztiak nortasunarekin lotutako bizipenekin daudela lotuta.




Grafiko honetan ez dago jasota, erabiltzaile berriei bakarrik baitagokie erreferentzia, baina esan behar dugu, gainera, 18 urtetik beherako trans gazteei jarraipen-arreta handia eskaini zaiela. Kontsultak honako arrazoi hauengatik izaten dira: norberaren gorputzarekin lotutako gatazkak, hezkuntzan eta familian izandako transfobia-egoerak, dokumentuak aldatzeko informazio-eskaerak, gizarte-isolamendua, ingurune seguruak bilatzea...

>65 urteko adin-tarteari dagokionez, ikus daitekeen bezala, ehunekoa oso txikia da.

Laburbilduz. - SGI kategoria da nagusi ia adin-tarte guztietan, eta eskaerak hainbat gairi lotuta daude: dokumentuak aldatzea, seme-alaben nortasunari buruzko zalantzak edo kezka, tratamendu medikoak, bizipen pertsonalak...

ERABILTZAILAREN JATORRIA

Pertsona migratzaileei egindako arretak totalaren %21a dira. Datu horrek iguera txiki bat adierazten du iazko datuekin alderatuta. Gipuzkoaren kasuan ehunekoa pixka bat handiagoa da gainerako probintziekin alderatuz. Hala ere, iaz Gipuzkoa eta beste bi lurralde Historikoen artean zegoen desoreka murriztu da, aurten Araban zein Bizkaian ehunekoa igo baita. Kontsulten tipologia aldatu egiten da lurraldearen arabera; esate baterako, Gipuzkoan gehienbat asilo-eskaerei lotuta daude, aldiz, Araban gehienbat sozializazio-sareen inguruko kontsultak dira. Ez bakarrik hori, dokumentu-aldaketarekin, bikote-loturekin eta osasun-arloko arazoekin, besteak beste, lotutako eskaerak hauteman dira.




KONTSULTAREN JATORRIA

Grafikoaren ehunekoen banaketa, jakina, lurralde bakoitzean artatutako "lehen kontsulten" bolumenarekin lotuta dago. Nolanahi ere, eta "Arreten laburpena" taulan ikus daitekeen bezala, artatu diren 10 eskaeretatik ia 9 probintzian bertan sortu dira, lurralde guztietan.



JATORRIA




ARABA	97	BESTE BATZUK	6
BIZKAIA	173	E.G.	31
GIPUZKOA	137		

KONTSULTA MOTA

Aurreko ataletan ez bezala, oraingo honetan urtean zehar jasotako eskari guztiak hartuko ditugu kontuan, eta, beraz, bertan egindako "Jarraipen" arreta guztiak jasoko ditugu. Zehaztu behar da, gainera, kontsulta-kopurua ez datorrela bat erabiltzaile guztien kopuruarekin, askotan pertsona berak kontsulta bat baino gehiago egiten baititu.

KONTSULTA MOTA



SEXU/GENERO IDENTITATEA	283	% 28	GIZARTE SENTSIBILIZAZIOA	60	% 6
JURIDIKOA	288	% 29	HEZKUNTZA	99	% 10
SEXU-OSASUNA	99	% 10	SEXU ORIENTAZIOA	49	% 5
SOZIALIZAZIO SAREAK	77	% 8	LGTBIFOBIA	40	% 4

Aurreko ataletan zertzelada laburrak eman dira zerbitzuan jasotako eskaeren tipologiari buruz, baina atal honetan xehetasun handiagoz aztertuko dugu gai hori, bereziki garrantzitsutzat jotzen baitugu erabiltzaileek agertutako beharrak ulertzeko asmoz.



laz bezala, bi kategoria nagusien arteko oreka ikusten dugu: *Sexu/genero identitatea eta Juridikoa*. Izan ere, Gipuzkoan eta Araban kategoria juridikoa da nagusi, Bizkaian ez bezala. Jarraian, kategoriak zehaztuko ditugu.

Sexu/genero identitatea. - Kategoria nagusia da. Kontsulten tipologiari dagokionez, honako hauek nabarmenduko ditugu:

1. Dokumentuak aldatzeari buruzko informazioa/dokumentazio iragankorra, legedi berrian oinarrituta. Sortutako arazoei dagokienez, esan behar da aurten zailtasun nagusiak Erregistroetan dagoen kolapsoagatik gertatu direla, dokumentuak aldatzeko hitzordua eskatu ahal izateko. Neurri txikiagoan, aldaketa egiteko jadanik eskatu ezin den dokumentazioa eskatzea edo prozesua ebazteko gehiegizko atzerapena ere zailtasun handiak izan dira.
2. Trans adingabeak.
Aurreko urteetan bezala, kontsulta eskaerak gurasoek, ikastetxeek edo adingabeekin lotutako beste pertsona edo erakunde batzuek egin dituzte. Kasu askotan eskaera horiek dokumentu-aldaketarekin lotuta badaude ere, adingabeen sexu-identitateek eta genero-arauetatik kanpo ikusten diren portaerek eragindako zalantzei edo ezinegonari buruzko aholkularitza-eskaerak ere jaso dira.
3. Aurreko paragrafoan esandakoaz gain, gazteen eskaera zuzenak jaso dira, eta horien bidez egiaztatu ahal izan dugu zalantza asko daudela, baita gatazka pertsonalak ere: gorputzeko ondoeza, emaitza azkarrak lortzeko antsietatea, eta denborak eta prozesuak kudeatzeko zailtasunak. Atentzioa ematen du, bereziki Araban, mutil trans asko, gorputz perfektu baten bila dabiltzala diruditenak. Horrek ezinegon handia sortzen die.
Gainera, gaininformazio bat ikusi da, adingabeak nahastera eta non kokatu ez jakitera eramaten dituen, eta horrek antsietate handia sortzen du azkenean.
4. Tratamendu hormonalen eta ebakuntzen prozesuei buruzko informazioa (ezaugarriak eta sarbideak), prozesuan sortutako antsietateen eta arazoan aurrean laguntzeaz gain.
5. Laguntza eta aholkularitza nortasun-prozesuetan (zalantzak, ondoezak, etab.)
6. Erlazio-zirkuluak eskatzea.

Ikus daitekeenez, nahiko kategoria heterogeneoa da. Gainera, aipatzekoa da sexu/genero-identitate bera duen pertsona batek artatzea eskatu duten erabiltzaile guztiei hala eman zaiela arreta.

Juridikoa. - Kategoria honen zatirik handiena osatzen duten kontsulta-tipologiak hiru dira (hurrenkeraren arabera):

1. Dokumentu-aldaketa (trans pertsonak). Argitu nahi da batzuetan kategoria honetan ematen diren kontsulta batzuk aurreko kategoriakoak direla ere bai. Izan ere, sexu/genero-identitate gisa sailkatutako eskaera asko kategoria juridikoan daude ere bai, dokumentuak aldatzeari buruzkoak direlako. Atal honetako kontsulta gehienak hurrengoak dira: legedi berriak izena/sexua zuzentzeko dauden aukerei buruzko informazioa eskatzea, Eusko Jaurlaritzaren dokumentazio iragankorrari buruz galdetzea, eta Erregistroetan ematen diren konplikazioen aurrean babesa eskatzea.



2. Asilo-eskatzailak. Pertsona hauek, funtsean, beren espedientea sendotzeko txostenak eskatzen dituzte, eta, neurri txikiagoan, akonpainamendu emozionala eta harreman-sarea bilatzen dute, beren egoera pertsonal konplexuari lotuta. Koordinazio-lanak ere egin dira laguntza psiko- sozialeko prozesuak kudeatzen dituzten erakundeekin (CEAR, ZEHAR Errefuxiatuekin).

Kategoria hau bereziki presente dago Gipuzkoan, ZEHAR Errefuxiatuekin dagoen lotura zuzenagatik; gainera, entitate honek Oñatiko harrera-zentroa kudeatzen du. Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen jatorrizko herrialdeak askotarikoak izan dira: Guatemala, Venezuela, Kamerun, Nikaragua, Kolonbia, Maroko, eta azkenaldian, Errusia (batez ere pertsona gazteak).

3. Indize baxuagoekin, "filiazioa" (emakume-bikoteak) eta "bikote-loturak" arloei lotutako eskariak aurkitzen ditugu.

Amaitzeko, adierazi nahi dugu lurraldearen arabera aldaketak ikusten direla; hau da, kategoria hau osatzen duten kontsulten kopurua zein tipologia ohikoen (dokumentu-aldaketa edo asiloa) nagusitasuna ez direla homogeenak edo berdinak hiru lurralde historikoetan.

Hezkuntza. - Halaber, kategoria garrantzitsua da (osasunarekin partekatzen du protagonismoa). Nolanahi ere, bulegoetan jasotako eskariak behera egin dute aurreko urtearekin alderatuta. Baliteke jaitziera hori zentroek Berdindu Eskolak zerbitzuarekin lotura zuzena izatearekin lotuta egotea.

Funtsean, dagozkien bulegoekin harremanetan jartzen diren ikastetxeak dira, honako hauetarako:

1. Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko prestakuntza-tailerrak eskatzea, bai irakasle zein ikasleentzat.
2. Kasu zehatzei aurre egiteko aholkularitza eskatzea.
3. Neurri txikiagoan, baina baita presente ere, lan akademikoari begira informazioa eta materialak eskatzen dituzten gazteak aurkitzen ditugu.

Argitu behar da, lehenengo bi puntuei dagokienez, eskaria dagokion bulegoan jaso ondoren, hori eskola-arretako arlora bideratzen dela, kontsulta behar bezala zehaztu eta kudea dadin.

Osasuna. - Oro har, tipologia honetan egindako eskaerak gora egin dute aurreko urtearekin alderatuta. Arreta gehienak trans pertsonen osasun-prozesuei dagozkie, trans emakume eta gizonek egindako eskaerekin, bai eta gurasoek egindako eskaerei ere, sexu berresleipen-prozesuari dagokionez. Kategoria honetan sartzen dira, halaber, SGLari lotutako bizipen pertsonal gatazkatsuak (depresioa, besteen artean) eta osasunaren eremuko (mentala eta fisikoa) baliabide asoziatibo eta instituzionalei buruzko informazio-eskaerak.

Argitu behar dugu, "Juridiko" atalean bezala, kategoria horrek ez duela baztertzeko "Sexu/ genero-identitatea" kategorian egin izana kontsulta ere bai, eta kasu batzuk bietan erregistratu baitira.



Sozializazio sareak. - Kategoria hau bereziki garrantzitsua da Araban, azken urteetan gora egin baitu. Eskaera gehienak LGTBI+ talde, jarduera eta topaketekin, gizarte-zirkulu seguru baten bilaketarekin, Berdindu-ri buruzko informazioarekin eta, azkenik, aisialdiarekin lotuta daude.

Gizarte sentsibilizazioa. - Iazko kopuruaren antzekoa du aurten. Tipologia honetan sartzen dira azterlan, kanpaina eta sentsibilizazio-ekimenetarako lankidetzak- eskaerak, data esanguratsuei buruzko informazioa eskatzen duten erakundeak eta, azkenik, hitzaldi eta jardunaldietarako informazioa eta gonbidapena.

Sexu-orientazioa. - Kontsulta-tipologia honen ehunekoa txikia da. Gatazka pertsonalak, famili-gatazkak eta sexu-orientazioari lotutako zalantzak barnebiltzen ditu. Era berean, armairutik ateratzeko prozesuarekin lotutako arretak erregistratu dira, eta, azkenik, familia-aholkularitzari eta/edo laguntzari buruzkoak.

LGTBI+fobia. - Azken kategoriaren zifra orokorra (35, jarraipenak kontuan hartuta) erreferentzia egiten dio urtean zehar erantzundako 15 kontsulta desberdinei. Bertan sartzen dira:

1. Familia-eremuko gatazkak: LGTBI+fobia-egoerak, sexu-orientazioa edota sexu/genero - identitatea ez onartzearekin lotutakoak.
2. Laneko ustezko diskriminazio- edo jazarpen-egoeren salaketak.
3. Egoera edo mezu ustez diskriminatzaileen salaketa hainbat hedabidetan: "El Conquistador" telebista programa, Caritas, Cebanc, Bilboko metroa, Administrazio Publikoa.
4. Irakasle batek ikasleengandik jasandako jazarpena (ikastetxeak jarrera pasibo bat hartuta), bai eta trans pertsona batek ere, mezu anonimoak jaso baitzituen.

Horrelako eskaerak kudeatzeko, Berdinduk Eraberean sarearekin lan egiten du, *Tratu-Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren Aurkako Sarearekin* (Eusko Jaurlaritzak).

KONTSULTA ESANGURATSUAK

Atal honetan, bereziki garrantzitsuak iruditzen zaizkigun eskaerak biltzen ditugu.


- Legedi berrira egokitzea. - *4/2023 Legea, otsailaren 28koa, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzekoa* onartu ondoren, erregistroetako desinformaziotik eta kolapsotik sortutako eskaera anitz egon dira. Aipatzekoa da, Legearen 50. artikulua zehazgabetasunak —atzerritartasunaren inguruan aritzen dena— ziurgabetasun handia eta zailtasun ugari sortu dizkie LGTBIQ+ kolektiboko pertsona atzerritarrei. Bestalde, Erregistro Zibilen antolakuntza ezak alde batetik atzerapen handiak eragin ditu hitzordua hartzeko orduan, eta bestetik trans pertsonen arreta desegokia ematea ere. Zorionez, arazo horiek konpontzeko bideak pixkanaka garatuz joan dira.
- Zaurgarritasuna. - Bi kasu, 27 eta 18 urteko gazteak, familia-eremuko LTGBifobiak sortutako kalteberatasun-egoeratik artatuak. Lehenengo kasuan, ADHD diagnostikoarekin eta antsietatearekin,



familiaren etxebizitza utzi zuen bikotekidearekin bizitzera joateko, baina baliabide ekonomiko eta sozialik ez duenez, kalteberatasun-egoera batean murgilduta dago. Bigarren kasuari dagokionez, gurasoek etxetik bota zuten gaztea, gay zela jakin zutelako.

- Espetxeratua dagoen pertsona trans bati arreta egin zaio kartzelan, Araba eta Gipuzkoan.
- Tolosako anbulatorioa. - Dokumentazio iragankorrenekin lotuta, Osasun Txartel Indibidualaren (OTI) datu-aldaketari buruzko informaziorik eza (Berdintasun Sailera bidaltzen dute pertsona, hobeto informa dadin).
- Trans emakume batek, arazo pertsonalengatik mugituta, lagunduriko suizidioa eskatzen du. Ondoren, NANaren aldaketa kudeatzen laguntzen zaio, polizia-agente batzuek ustez egindako komentario transfoboek sortutako ondorearen ondoren. Zorionez, egoera guztiak behar bezala konpondu dira.
- Emakume trans kolonbiarra. - Bere herrialdetik etorri berritan, Caritasen etxe batean aurkitu zuen aterpea. Piisuko apaizak eskatu zion jaiotzean esleitutako generoa ez azaltzea, etxean arazoak saihesteko. Ondoren, kontaktzen duenez, SOS Arrazakerian ere arreta desagokia jaso zuen.
- Jarrera gatazkatsuak dituzten hiru pertsona. - Horiek guztiak, hasiera batean, dokumentu-aldaketarekin lotuta zeuden; hala ere, jarrera oldarkorrak, xantaia, loturarik gabeko kontaera edo behin eta berriz arreta eskatzea modu itogarrian eta justifikaziorik gabe direla eta, ezin izan zaie arreta ematen jarraitu.
- Asiloa. - Urtean zehar, jatorrizko herrialde desberdinetik ihes egin duten pertsonen eskaerei erantzun zaie, herrialde horietan beren integritate fisikorako dagoen arriskuagatik. Historia dramatikoak dituzten pertsonak dira, eta zerbitzu honek laguntza emozionala eskaintzen die, baita asilo-eskaera indartzen duten laguntza-txostenak ere: 1. txostena. Historia pertsonala eta ondorio eratorriak / 2. txostena. Dagokion herrialdean LGTBI+ kolektiboarentzat dagoen legezketasuna eta egoera zaila egiaztatzen duen txostena.

KONTSULTAREN KOMUNIKAZIO BIDEA






PRESENTZIALA	190	BIDEOKONFERENTZIA	1
TELEFONIKOA	297	BESTE BATZUK	6
POSTA ELEKTRONIKOA	172	E.G.	15
SARE SOZIALAK	44		

"Kontsulta motan" bezala, eta memoria osatzen duten atal gehienetan ez bezala, atal honetan urtean zehar jasotako eskari guztiak hartuko ditugu kontuan, eta, beraz, bertan egindako jarraipeneko kontsultak jasoko ditugu.

Ohi bezala, komunikazio-bide nagusiak telefonoa (%41) eta, alde handiarekin, aurrez aurreko arreta (%26) eta posta elektronikoa (%24) dira, azken bi hauek desberdintasun txikiarekin. Telefono bidezko arretaren aldeko desoreka hori, nolana ere, aurreko urteetako baino txikiagoa da, igoera txikiak izan baitira gainerako kategorietan, batez ere sare sozialetan.

Arreta presentzialei dagokienez (iazkoaren antzeko datua), gero eta presa handiagoa dagoela esan behar da, batez ere gazteekin zerikusia duten tramiteetan. Horri gehitu behar zaio gero eta izapide gehiago egin daitezkeela online. Horrekin batera, arriskuan jartzeko beldurraren ondorioz, arreta presentzialen kopurua jaitsi egiten dela uste da.

ZERBITZUA EZAGUTZEKO MODUA



Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, aurreko pertsona gehienek zuzenean jotzen dute zerbitzura (%67) — iaz, berriz, %62a—. Uste dugu orain arte egindako zabalkunde-ekimenek eta zerbitzuaren finkatzeak zeregin garrantzitsua izan dutela maila horretan. Nolanahi ere, zerbitzua kudeatzen zuten elkarteak alde aurretik ezagutzea bideratze-iturri garrantzitsua da oraindik ere.



BERDINDU ZERBITZUA

ESKOLA ARRETA



BERDINDU ESKOLAK ZERBITZUAK

Berdindu eskolak zerbitzuak 6 jarduera-ildo nagusi ditu, hau da: aholkularitzak irakasleentzat, ikasleentzako prestakuntza, irakasleentzako formakuntzak ikastetxeetan, familientzako prestakuntza, Berritzeguneetako profesionalentzako prestakuntza eta interes-taldeentzako ikastaroak. Halere, 2023ko lanaren argazkia ahalik eta esanguratsuena izan dadin, erabiltzaileen arabera metatuko ditugu aipatutako zerbitzuak:


- Irakasleekin izandako jarduna
- Ikasleekin
- Familiekin

Hezkuntza komunitatea osatzen duten atal guztietan izandako jardunaren azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egingo dugu ondorengo lerroetan.

IRAKASLEAK - FORMAKUNTZAK ETA AHOLKULARITZAK

Berdindu, bere ibilbide luzearekin, erreferente gisa finkatu da EAEn LGTBI kolektiboarekin zerikusia duen guztian. Hezkuntzaren arloari dagokionez, gero eta ikastetxe gehiagok hezkidetzak eta sexu- eta genero-aniztasuna batera ulertzen dituzte, eta horixe da, hain zuzen ere, Berdindu eskolak defendatzen duen erronka. Irakasleek ikasgeletan sexu- eta genero-aniztasuna lantzeko orduan, zenbait segurtasun falta sumatzen jarraitzen duten arren, eskerrak eman dute haiei babesa eta aholkularitza emateagatik.

Hau da, Berdindu eskolak zerbitzua martxan hasi zenetik izandako garapena irakasleen formakuntza eta aholkularitza zerbitzuak jaso dutenen kopurua:



2022tik 2023ra jeitsiera nabarmenena irakasleen formakuntza kopuruetan nabari da. 2022tik erkidegoko hezkuntza sistemaren eraldaketa digitala ikastetxeetan digitalizazioa bermetzeko plana martxan jarri du Eusko Jaurlaritzak. Horren arabera irakaslegoa CurriDigi planaren arabera formakuntza bideratu beharrean dago. Eta horrek zenbait traba suposatzen dizkigu.




Zenbait kasutan, zailtasunak izan ditugu ikasguneetako egutegietan txertatzeko Berdindu eskolen formazioak, eta beste zenbaitetan, ezinezkoa izan da ordu guztiak derrigorrezko ekintzetara bideratuta egon direlako (batez ere Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan).


Bestalde Berritzegune zerbitzuaren eraldaketa prozesua garai berean eman da. Ez da alde batera uzteko errealitate bat egoera hau ebaluatzeko orduan, izan ere, oso ondo funtzionatu duen zerbitzu bat izan da, besteak beste, formakuntza hauek mugitzeko.

Oraindik garaiz da urte honetako egoera bere honetan mantenduko den, tendentzia berri batetan, edo 2019-2022 urteetako egoerara itzuliko garen jakiteko. Izan ere urte epe horretan, formakuntzak zeharo igo ziren (2020ko pandemia kenduta).

Irakasleekin aholkularitzak eta sexu/genero aniztasunaren inguruko ikastaroak landu dira. Partaideen sexuari erreparatuta, honako argazki hau daukagu:



Ikastetxeek gehien eskatzen duten zerbitzua aholkularitzari dagokio, ondorengo taulan ikus daitekeen bezala:





AHOLKULARITZAK IKASTETXEETAN

Egindako aholkularitzetatik ateratako ondorio nagusia argia da: ikastetxeek aholkularitza eta akonpainamendua eskatzen dute gehienetan trans ikasleak dituztenean. Kezka sumatzen da baita ere, bigarren hezkuntzako institutuetan LGTBifobia zantzuak antzematen dituztenean (homofobia, lesbofobia...). Guzti horri lotuta, ezin utzi aipatu gabe zenbaitetan jarrera matxistak eta sexistak antzematen direla. Erresistentzia handiak aniztasuna onartzeko, hain zuzen ere.

Beste urteetan bezala, nabarmentzeko da mutil transen kopurua askoz handiagoa dela Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan neskena baino. Hau da, lehen hezkuntzatik datozen eskerak gehigotan dira neska transekin zerikusia dutenak eta urteekin aurera eginez gero, mutilen kopurua handituz doala.

Abiatu ditugun aholkularitza gehienetan irakasleen formakuntzaren beharra aitortu da. Nahiz eta zenbait kasutan, irakaslegoak gero eta beldur gutxiagoz ekin gaiari. Zenbait kasutan trans ikasleen akonpainamendua modu egokian bideratzen den arren, transfobiaren beldur dira irakasleak, eta hori saihesteko tresnak eta dinamikak eskatzen dituzte. Lehen esan den bezala, beti ezin izan da formazioa egin egutegia gainezka izan dutelako.

Aholkularitzak zein formazio eskari batzuk Berritzegune Nagusitik jaso dira, baina berriro dira ikastetxeak zuzenean kontaktuan jartzen direnak Berdindu Eskolakekin. Berritzeguneetan ematen ari den eraldaketak eragin zuzena du gure hedapenarekin, zubi lan hori zenbait kasutan hankamotz geratu baita.

FORMAZIOEN BALORAZIOAK

Berdindu Eskolak zerbitzuak egoera zehatzetan emandako aholkularitza eta jarraipena asko eskertu dute ikastetxeek eta Berritzegunetako zenbait kidek. Horrez gain, prestakuntzan landu diren tresnak eta gaiarekiko ikuspegi zabalaren aberastasuna baloratu dituzte bereziki. Ikus-entzunezko materialen lanketa egiteaz gain, egunerokotasunean ikuspegia txertatzeko irizpideak martxan jarri dira eta kasu edo egoera zehatzak bizi dituzten ikasleei ahalik eta akonpainamendurik egokiena egiteko urratsak landu dira.

Ondorengo taulan formazioa jaso duten irakasleen balorazioen emaitzak jaso dira: (1etik 5era: 1- oso gaizki, 2- gaizki, 3- nahikoa, 4- ondo, 5- oso ondo)

	BALORAZIOA
EDUKIAK	4,15
ULERGARRITASUNA	4,30
METODOLOGIA	4,10
ERABILGARRITASUNA	4,15
IGURIKAPENAK	4,10
NOTA OROKORRA	4,56
GOMENDAGARRIA DA FORMAKUNTZA?	Bai: % 95; Ez dakit: % 5; Ez: % 0




ZELAN SENTITU ZARA?	Ondo: % 95,1, Kili-kolo: % 4,9; Gaizki: % 0
----------------------------	---


FORMAZIOA JASO DUTEN IKASTETXEAK

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
HAUR HEZKUNZA+LEHEN HEZKUNTZA	7	14	2	23
BIGARREN HEZKUNTZA		8	4	12
BESTE IKASTETXE MOTA (PCPI, FP...)		1	1	2

Eskera gehienak lehen hezkuntzako ikastetxeetatik etorri dira baina joera berdintze aldera doa. Halere, kontutan izan behar da, bigarren hezkuntzako institutu asko gero eta handiagoak direla eta talde bikoizketa egin behar izan dela. Zenbait kasutan 5 lerroko institutuak izan ditugu eta eskoletan gehienetan 2 lerro baino ez daude. Horrek esan nahi du errez topa ditzakegula 80 irakasletik gorako bigarren hezkuntzako institutuak.



Eskaerari erreperatuta eta batez ere eskolen izaerari begiratuta, honako zailkapen hau ikus dezakegu (publikoak edo itunpekoak):





Eskaera gehienak ikastetxe publikoetatik datoz, argi ikus daitekeen bezala. Eta hauetatik, nahiko parekatuta dago Lehen eta Bigarren hezkuntza.

IKASLEEN FORMAKUNTZAK


Gutzira 192 tailer egin dira EAE osoan.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
LEHEN HEZKUNTZA	13	43	23	79
BIGARREN HEZKUNTZA	31	47	35	113
GUZTIRA	44	90	58	192

Ondorengo taulan, herrialde bakoitzean 2023an Berdindu Eskolak Zerbitzuko tailerretan parte-hartu duten ikasleen kopurua islatzen da, norberaren identitatea kontuan izanik.

	NESKAK	MUTILAK	EZ-BITARRA	GUZTIRA
ARABA	428	425	5	858
BIZKAIA	869	877	7	1.753
GIPUZKOA	542	534	43	1.119
GUZTIRA	1.839	1.836	55	3.730

Identitateari dagokionez, hiru herrialdeetan nola identifikatzen diren erantzuterakoan, gehienek neska edo mutilak bezena identifikatzen direla erantzuten dute. Iazko antzeko zenbakiak azaldu dira, ematen diren ezberdintasunek esanguratasunik ez dutelarik. Ez bitarren multzoan, ez bitarrez gain, erantzun nahi izan ez dutenak, ez dakitela adierazi digutenak eta identitate jariakorra dutenak barnebildu dira. Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren artean zenbakiak antzekoak dira, ezberdintasun handiena LHn ez-bitar gehiago daudela DBHn baino ageri da.



Ikasleen ebaluazioak

Ebaluazioak begiratu gero, nabarmena da saioak oso aberasgarriak izan direla eurentzat. Alde batetik, aniztasun afektibo sexualaren eta oro ar hezkuntza sexualaren inguruko jakintza minimoa



eskuratu eta zalantzak argitzeko baliatu dituzte saioak; bestetik, gune eroso eta segurua sortzea lortu da sexu-aniztasunaren inguruan dituzten kezkek edo gogoeta pertsonalak adierazteko, azken hori gauzatu ahal izateko espazio seguru gehiegi ez izatea onartzen baitute.

Gai batzuetan gehiago sakontzea eta ordu gehiago eskaintzea eskatu dute, beraz, interes maila altua dagoela esan genezake. Gainera, ikasleen gehiengoak zerbait berria ikasi dutela idatzi dute ebaluaketetan. Amaierako iruzkin librean asko gustatu zaiela eta beharrezkoa ziren azalpenak landu dituztela ere azpimarratu dute.

Hezitzaileen ebaluazioa

Aipatzekoa da DBHko ikasleen artean somatu ditugun errespetu faltak. Jarrera bortitzak ez dira LGTBQ+ kolektiboaren aurkako jarrerak izan bereziki, gauza puntualak ikusi ditugu, baina gainerako urteekin alderatuta ez dugu igoyerarik ikusi, bai ordea hezitzaileekiko errespetu faltak, bereziki hezitzaile emakume edo genero adierazpen femeninoa dutenekiko.

Aldi berean, eskola askok gaiari garrantzi handia ematen diotela eta barne protokoloak lanketan eta gainbegiraketa abian dituztela ikusi dugu. Horregatik, jarrera oldarkorren aurrean grina galdu beharrean, bai ikasle eta bai irakasleen aldetik gero eta diskriminaziorik gabeko giroak sortzeko ekimen eta gogoia hezitzaileen abiagailua bihurtu dira. Azken finean, gizartean diskriminaziorik gabeko hezkuntza sistema bermatzea epe luzeko prozesua da; gora beherakoa, baina aurrerapausoak ematen dituena.

Bestetik, geletan LGBTI errealitateak geroz eta gehiago dira. Kolektiboko parte diren ikasle ugari topatu ditugu, eta ia guztiek ezagutzen dute gertutik LGBTI kolektibokoa den pertsona bat baino gehiago. Honek gure lana asko errazten du, izan ere, erreferente errealak askoz positiboagoak iruditzen zaizkigu askotan telebistan ikusten dituzten beste batzuk baino. Dena den, oso adierazgarria egiten zaigu ikasle ez-bitar edo euren generoa adierazi nahi ez duten horien kopuruaren gorakada. Azken urte hauetan transexualitate egoerak geroz eta ugariagoak egin diren bezala, epe laburragoan pertsona ez bitarrak ere geroz eta gehiago direla ikusten ari gara. Dena den, oso ezkutuan dagoen errealitatea da oraindik eta lan handia dugu hori ikusarazi eta horren inguruan hausnartzeko ikasgeletan.

Sexu-hezkuntza gazteria gizarteratzeko mekanismo gisa ulertzen dugu, garapen pertsonalean horren garrantzitsuak diren aniztasun eta errespetuan oinarritzen baita. Beraz, esku-hartzeak arrakastatsuak izan dira eta balorazioek adierazten dute saioak oso positiboak eta aberasgarriak izan direla. Orain arte azaldutakoagatik, bide horretan jarraitzeko asmoa berresten dugu. Sexualitatea ikasgeletan landu beharreko funtsezko gaia da eta guk bide hori jorratzen jarraitzeko asmoa dugu, sexu errealitate bakoitza ahalik eta modu zoriontsuenean bizitzeko eta gizarte anitz eta errespetuzkoagoa eraikitzen laguntzeko gaitasunak eta trebetasunak errazteko.

FAMILIEN FORMAKUNTZAK

Guztira 13 formakuntza egin dira (Arabian 2, Bizkaian 4 eta Gipuzkoan 7) eta beti ere, trans egoeran dauden ikasleen eskoletatik edo gurasoek hala eskatuta jaso ditugu eskaera horiek.



Guztira, 156 partaide izan ditugu (126 emakume, 29 gizon eta ez-bitar 1). Nabarmena da generoaren eragina seme-alaben zaintzari dagokionez, izan ere %80 emakumezkoa da. Hezkuntzako esku-hartze esparru guztietan ikusten dugu sexismoaren eragina oraindik ere.

BESTE INTERES TALDE BATZUK

Berdindu zerbitzutik sexu eta genero aniztasunaren inguruko formakuntza erakunde eta eragile ezberdinetara hedatzen dugu baita ere. 2023 urtean zehar ondorengo formakuntzak burutu ditugu hezkuntza arlotik kanpo:

OSI ARABAK antolaturiko ikastaroa

Lau ikastaro antolatu dira urtean zehar (3 gaztelaniaz eta bat euskaraz). Hiru orduko ikastaroak izan dira guztiak eta Gasteizen bideratu dira.

Esperientzia guztiz positibiboa izan da osasun arloko langileekin sexu-genero aniztasuna partekatzea eta hala adierazi dute ikastaroetan parte hartu dutenek (90 lagun guztira), batz beteko 8,5 nota eman baidiote formakuntzari.

Antolatzaileek euren aldetik ere bai, aurrerantzean formakuntza hauekin jarraitzeko asmoa azaldu digute.

Berritzegune eta EAEko aholkulariei zuzendutako online formakuntza

Apirilak 20ean online formakuntza saio bat egin zen Berritzegune Nagusiaren koordinaziopean, EAE osoko aholkulari eta talde pedagogikoei zuzendua. 2 orduko ikastaroa.

200 lagun inguru konektatu ziren, eta online izateko oso ondo irten zen. Hainbat berritzegunetan profesionalak bildu ziren, eta horrek online formatua hobetu zuen, bakoitza bere ordenagailuan egotea baino askoz hobea, modu horretan euren arteko eztabaida eta elkarrizketak erraztu baitziren.

Ikastetxeetan topatzen ditugun egoera eta zailtasun ezberdinak aurkeztu genituen, baita ditugun baliabideak, eta lege berriaren inplikazioak.



BERDINDU ZERBITZUA

KOORDINAZIO ARLOAREN MEMORIA



Anitz Federazioak pertsona bat izendatu zuen erakundearen ordezkari, Berdindu zerbitzua Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzarekin koordinatzeko, bai eta zerbitzu osoaren jardura-planoak koordinatzeko ere. Kontratuan zehazten den bezala, Berdinduko zerbitzuen eta Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzaren arteko komunikazioa bideratzea eta erraztea da bere lanaren eginkizun nagusietako bat.

Kontratuaren laugarren urtea ia beterik dela, esan dezakegu Berdindu osatzen duten zerbitzuen eta Zuzendaritzaren beraren komunikazioari eta erantzun-bizkortasunari dagokienez, egonkortasuna eta funtzionamendu ona daudela.

Koordinazio-lanen barruan, barne-mailan, bilerak egin dira astero hiru bulegoen eta Berdindu Eskolak saileko eta hezitzaile taldearen funtzionamendu egokia bermatzeko. Era berean, kontratuaren arduradunarekin aldizkako koordinazioa izan da, Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzatik datozen eskaerak eta gaiak uneoro bermatzeko.

KOORDINAZIOAREN KUDEAKETA

- Asteroko barne-bilerak, Berdinduko zerbitzu guztiak koordinatzeko.
- Datuen erregistroa eta hileko jakinarazpena, zerbitzuen arabera banakatuta (bulegoetako eta eskolako esku-hartzeak) eta Zuzendaritzarekin adostutako parametroetan.
- Bi hileko koordinazio-bilerak kontratuaren ardura duen teknikariarekin.
- Berdindu-ren sei hilean behingo eta urteko memoria egitea.
- Berritzegune Nagusiarekin aldi behin bilerak egitea, Berdindu Eskolak kudeatzeko, eta tokiko Eragingunekin, hala eskatu dutenean. Kudeaketa hori urtean zehar sortu diren beharretara egokitzen joan da, zerbitzu horretan gertatzen ari diren egiturazko aldaketen ondorioz.
- Data jakin batzuetan, maiatzaren 17an edo ekainaren 28an, egin beharreko manifestuen kudeaketa.

Aipatutako zerbitzuen koordinazioaz gain, unean uneko eskaeretara ere jo da Zuzendaritzak egindakoak.

- Elkarrizketak egitea hainbat erakunde eta komunikabiderekin, Berdindu zerbitzuaren berri emateko.
- Ikasleentzako arreta, batez ere unibertsitatekoak.
- Arabako ESIko Berdintasun Zerbitzuarekin koordinatu, zerbitzuko pertsonentzat sentsibilizazio-jardunaldiak abian jartzeko.



BERDINDU ZERBITZUA

BERDINDU ERABEREAN SAREAN



Berdindu zerbitzua sare horretan egotea ANITZeko pertsona batek Zuzendaritzari aholkularitza eta laguntza teknikoak ematean datza, eta talde eragilean eta urtean zehar egiten diren osoko bilkuretan parte hartzen du.

TALDE ERAGILEA ETA OSOKO BILKURAK

Talde Eragilearen bileretan jorratutako gaiak osoko bilkuraren bilera prestatzeari buruzkoak dira, bai eta Ereaberean Sarearen zeharkako eta laneko beste gai batzuei buruzkoak ere. Sarea koordinatzen eta bultzatzen duen organoa da, sarea antolatzen den lan-batzordeena eta kasuei, kanpainei eta prestakuntzei ematen zaien arretarena. 7 bilera online egin dira.

Berdinduk parte hartzen duen Talde Motorraren bilera horietan landutako gaiak antenetara eramaten dira ondoren, osoko bilkuren bidez:

- Urteko plangintza.
- Batzordeen ibilera eta lana baloratzea.
- Urtean zehar artatutako kasuak kudeatzea.
- Urtean zehar egin beharreko sentsibilizazio-kanpainak: onarpen-eskubideari buruzko sentsibilizazio-kanpaina.
- Klinika juridikoaren mintegi iraunkorra.
- Biktimei arreta emateko protokoloa.
- LGTB Euskal Behatokia.
- Sarearen berregituratzea egin beharreko funtzioen arabera.

Osoko bilkurak hilean behin egiten dira. Sarea osatzen duten eragileen topaketa horiek 3 lurretan egiten diren aurrez aurreko bilerak dira, eta honako data hauetan egin dira:

- Urtarrilaren 23a (Bilbo)
- Martxoaren 07 (Gasteiz)
- Apirilak 18 (Bilbo)
- Maiatzak 22 (Gasteiz)
- Ekainak 14 (Lakua/Gasteiz)
- Uztailak 3 (On-line)
- Irailak 21 (Lakua/Gasteiz)
- Urriak 26 (Bilbo)
- Abenduak 20 (on-line)



BERDINDU ZERBITZUA

KOMUNIKABIDEA: WEB GUNEA



2023AN BERDINDUKO WEBGUNEAN EGINDAKO EDUKI EGUNERATZEAK

SARRERA

Aurten ere, zailtasun handia izan dugu albisteen atala eguneratzeko orduan. Berdinduko web orriari argitaratzen den albiste-kopurua altua ez den arren, egia da, halaber, zenbaki hori ez dela arlo horretan egindako lanaren adierazgarri.

Egunero, komunikabide nagusiak monitorizatzen dira, komunikabide horiek eskaneatuz, LGBTI kolektiboarekin zerikusia duten albiste guztiak aurkitzeko. Era berean, alertak konfiguratuta ditugu Googleren zerbitzarietan, eta horiek abisatzen digute edozein webgunetan kolektiboarekin lotutako zerbaitek berria argitaratzen den bakoitzean.

Albisteak aurkitu ondoren, banan-banan baloratzen dira, eta banan-banan berrikusten dira, egokiak diren ala ez egiaztatzeko, Berdinduko webgunera igotzeko. Horrek astean gutxi gorabehera 20 edo 25 albisteen egokitasuna ebaluatzen garamatza, eta horietatik gehienak baztertu egiten dira. Izan ere, albisteez, oro har, konnotazio politikoak dituzte, edo kolektiboaren aurkako erasoekin dute zerikusia, eta biak dira baztertzeko irizpideak; lehenengoa, Berdindu zerbitzu publikoa delako, eta, bigarrena, Berdinduk ez dituelako iraunarazi nahi kolektiboari buruz dauden estereotipo negatiboak.

Irizpide hauek kontuan hartuta, ulergarria da komunikabideetan eta sare sozialetan kolektiboari buruz argitaratzen den albiste-kopurua askoz ere handiagoa den arren, Berdinduko webgunean argitaratzen dugun albiste-kopurua askoz ere txikiagoa izatea. Hala eta guztiz ere, urtean zehar albisteen etengabeko argitalpen bat mantentzen saiatzen da.

Aurten, aurrekoetan bezala, albisteen atalean lan handia egin behar dugu dauden berriak bahetzen, haien egokitasuna egiaztatzeko. Hala ere, Agendaren atalean alderantzizko egoera aurkitzen dugu.

Ia ez da talde-jarduerarik egiten, eta egiten diren gutxi hauetatik, gehienak online egiten dira. Hala ere, taldeko gizarte-eragile eta erakunde nagusiekin harremanetan gaude, egiten dituzten jardueren berri izan dezagun, eta guztiak agendan argitaratu ditugu.

Jarraian, web-orriari 2023an egin ditugun jardueren nagusien zerrenda xehatua aurkezten dugu.

BERRIAK

- 09/01/2023 -"Etxean ez dago ez arrosarik ez urdinik" lgtbi+ familiek genero-binarismoa hausten dute.
- 09/01/2023 -"Identitate berriak aldarrikatu eta estereotipo kulturalak hautsi nahi ditut".
- 10/01/2023 - Bilbo LGBTI turismoaren hiri gogokoetako bat da.
- 07/02/2023 -Kim Petraski historia egiten du LGBTI komunitatearentzat Grammy sariretan.
- 14/02/2023 - Jakub Jankto Getafeko jokalaria homosexuala dela iragarri du: "Ez dut gehiago ezkutatu nahi"



- 15/02/2023 - EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak atzera bota du Castelloko LGTBI liburuen banaketaren aurka Abokatu Kristauek jarritako helegitea
- 16/02/2023 - Trans lege polemikoa gaur onartuko da Kongresuan: 16 urtetik aurrera sexua aldatu ahal izango da txosten medikorik gabe
- 03/03/2023 - Eskerrik asko Mikel, beti gurekin.
- 06/03/2023 -Martxoaren 8ko manifestazioen ordutegiak eta lekuak Euskal Herriko hiriburuetan-
- 29/03/2023 - Txosten baten arabera, Espainia munduko 10 herrialde seguruenetako bat da LGTBI bidaiarientzat
- 29/03/2023 -Berdinduren komunikatua, martxoaren 31a egunean, trans ikusgarritasunaren nazioarteko eguna
- 10/04/2023 - Transexualen berdintasun erreal eta eraginkorreko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko legea sartu da indarrean
- 25/04/2023 - Berdindu-ren manifestua, apirilaren 26a, ikuspen lesbikoaren eguna dela eta
- 27/04/2023 - Bollera gorputzak ez du zerikusirik sexualitatearekin
- 02/05/2023 - FSC-CCOoko LGTBI+ aktibista-taldeak "La LGTBIfobia desde la prevención de riesgos laborales" dokumentuan parte hartu du
- 08/05/2023 - Berdindu! -ek 640 kontsulta baino gehiago jaso zituen iaz, eta 2.400 irakasle baino gehiagori aholku eman zien LGTBI diskriminazioaren aurka
- 08/05/2023 -Ia 3.800 ikaslek homofobiaren aurkako prestakuntza jaso zuten iaz-
- 16/05/2023 - Maiatzak 17 LGTBIfobiaren aurkako nazioarteko eguna
- 06/06/2023 - Imparables 2, begirada askatzaileen bila LGTBI munduaren borrokari buruzko dokumentala
- 08/06/2023 - 2023an Europan LGTBI+ eskubideetan izandako aurrerapenak erakusten dituen mapa - El mapa que muestra los avances en derechos LGTBI+ en Europa este 2023
- 09/06/2023 - 75 jarduera LGTBI harrotasuna ospatzeko Bizkaian
- 13/06/2023 -Berdindu! -k nekatur_euskadi bonu bi zozkatuko ditu. 4 lagunentzako bi eguneko egonaldia irabazi ahal izango duzu.
- 20/06/2023 - Estonia da homosexualen arteko ezkontza legeztatzen duen Baltikoko lehen herrialdea
- 26/06/2023 - Berdinduren komunikatua, ekainaren 28a, sexu-askapenaren eta lgtb harrotasunaren nazioarteko eguna dela eta
- 06/07/2023 - EBko 16 herrialde agertu dira legeek trans pertsonen genero-autodeterminazioa bermatzearen alde
- 20/08/2023 - Trans espazioa, trans pertsonentzat eta pertsonentzat leku segurua
- 21/09/2023 - Printzerriak "ahalik eta adostasun zabalena" lortu nahi du Lgtbi kolektiboaren eskubideen legerako
- 22/09/2023 - Enpresa anitzagoa izateko gida
- 20/10/2023 Berdinduren komunikatua 2023ko despatologizazio transaren nazioarteko egunagatik.
- 30/10/2023 -Eraberean tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren sareak 2021-2022 jarduera-txostena argitaratu du.



- 22/11/2023 -Azterlana: “Gipuzkoan bizi diren jatorri latinoamerikarreko biztanleek LGBTI+ kolektiboaren inguruan dituzten pertzepzioak”

AGENDAN GEHITUTAKO EKITALDIAK

Urtarrila

- 17/01/2023 - 20/01/2023 kongresua – “EMAKUMEAK”

Otsaila

- 24/02/2022 - 26/02/2023 - Latinoamerika eta Karibeko, Ekuatore Gineako eta Espainiako Estatuko Behatokiaren 1. Nazioarteko Topaketa, LGBTI+fobiaren aurka
- 28/02/2023 - 09:00 - 17:00 - Matxismo hegemonikoaren aurrean alternatiba globalak

Martxoa

- 03/03/2023 - 10:30 - 12:00 - Genero-ikuspegia eta interseksionalitatea gizarte esku-hartzean jardunaldia
- 07/03/2023 - 18:00 - 19:00 Zirgari Sariak Ekitaldia
- 22/03/2023 - 09:45 - 14:30 - Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko etorkizuneko Euskal Legeari buruzko hausnarketa eta eztabaida jardunaldiak
- 26/03/2023 - 19:00 - 21:00 - Antzerkiaren Munduko Eguna, La Fundicioen izango da, LGTBIQ+ Harrotasunaren ospakizun aurreratu bat izango da
- 31/03/2023 Transexualitatea ikusarazteko eguna

Apirila

- 01/04/2023 - 19:00 - 21:00 - Antzerkiaren Munduko Eguna, La Fundicioen izango da, LGTBIQ+ Harrotasunaren ospakizun aurreratu bat izango da
- 02/04/2023 - 19:00 - 21:00 - Antzerkiaren Munduko Eguna, La Fundicioen izango da, LGTBIQ+ Harrotasunaren ospakizun aurreratu bat izango da
- 26/04/2023 - Ikuspen lesbikoaren eguna

Maiatza

- 17/05/2023 - LGTBIfobiaren aurkako eguna
- 18/05/2023 - 18:30 - 20:30 - Hitzaldia: Transen errealitatea hurbilduz eta intersexualen topaketa

Ekaina

- 28/06/2023 - LGTBI harrotasuna

Urria

- 05/10/2023 - 06/10/2023 - Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko III. Euskal Kongresua
- 14/10/2023 - Transexualitatea despatologizatzeko eguna
- 26/10/2023 - Intersexualitatearen ikusgaitasunaren eguna



Azaroa

- 20/11/2023 - Trans memoria eguna
- 25/11/2023 - Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna

Abendua

- 01/12/2023 - GIB-hiesaren aurkako borrokaren munduko eguna
- 03/12/2023 - Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Eguna
- 03/12/2023 - Euskararen Nazioarteko Eguna
- 10/12/2023 - Giza Eskubideen Eguna
- 17/12/2023 - Emakume langileen aurkako indarkeriari amaiera emateko nazioarteko eguna
- 18/12/2023 - Migratzaileen eguna



BERDINDU ZERBITZUA

SARE SOZIALEN URTEKO MEMORIA



Urte honetan zehar, hainbat ekintza aurrera eramán ditugu gure sareetan, guztira 18 argitalpen, iragarpen bat eta 176 “istorio” edo aldi-baterako argitalpen, hedatuz.

Aurten, lehentasuna eman nahi izan diogu data esanguratsuei, hauek baitira historikoki gure profilean oihartzun gehiago izan dituzten argitalpenak. Hala ere, jakin badakigu data horietan bakarrik publikatzea, babesgabe utziko lituzkeela urteko beste egunak, eta sareak aktibo mantentzearen garrantzian sinesten dugu, zerbitzu gisa aintzat har gaitzaten.

Ildo horretan, istorioak igotzeko funtzioa gero eta ezagunagoa eta eraginkorragoa bihurtu da, feedeko argitalpen tradizionalekin alderatuta. Gainera, esan behar da sare sozialetan argitaratzeko metodo hori dela Instagramen gehien erabiltzen dena, onarpen handiena lortu dugun sarean. Aurten gainera, positiboki baloratzen dugu sareetan egin dugun diru inbertsioa, beti ere, zerbitzua ahalik eta ezagunena izan dadin. Horrek ere laguntzen du gure hedapenean eta gero eta ezagunagoak izan gaitzen.

Instagrameko istorioek modu dinamikoagoa eskaintzen dute edukia gure audientziarekin partekatzeko. Istorioei, argazkiak, bideoak, idatziak edo musika erantsi diezaiokegu, esperientzia interaktiboagoa sortuz gure jarraitzaileentzako. Gainera, istorioek estekak, inkestak eta galderak izan ditzakete, eta horrek gure komunitatearekin komunikazio zuzenagoa eta eraginkorragoa izatea ahalbidetzen du.

Hori dela eta, edukia sortzea erabaki dugu era dinamiko, informal era eraginkorrerago batean, gure audientziak senti dezaten pertsonak daudela Berdinduko sareen beste aldean, denbora gutxiago behar dugula argitalpen tradizional batekin alderatuz. Azken hauek planifikatzea, argazkiak editatzea eta testu luzeagoak idaztea behar duten bitartean, istorioak azkarrago eta errazago sor daitezke. Honek edukiak sarriago eta modu sendoagoan argitaratzeko aukera ematen digu, gure entzuleen arreta eta interesa mantenduz.

ARGITALPENAK

Guztira, data esanguratsuei buruzko 11 argitalpen izan dira feedean, batzuek manifesturik gabe. Uste dugu egun horiek oso garrantzitsuak direla kolektibo minoritarioak eta diskriminatuak ikusarazteko, beraz, egun horiek aldarrikatzeko tarte bat ere eman nahi izan dugu, nahiz eta komunikaturik egin ez. Hona hemen adibide batzuk:





Oro har, onarpen handiena izan duten argitalpenak data-esanguratsuei lotutakoak izan direla ziurta dezakegu. Izan ere, hiru sare sozialetan aho batez oihartzun handiena izan duen argitalpena maiatzaren 17koa izan da: LGTBIQ+fobiaren aurkako nazioarteko eguna. Era berean, Facebook-en irismen handiena izan zuen argitalpena, 505 lagunen irismena lortu zuena, LGTBIQ+ kolektiboaren sexu askapenaren eta harrotasunaren nazioarteko egunekoa izan zen.

Gainera, Bilbao Bizkaia Harroko asteburuan Berdinduk ipinitako stand-a sustatzeko kanpaina aurrera eraman dugu. Arlo honetan 6 post egin dira, edo beste erara esanda, argitalpen bat egunero ekainak 8tik 14ra arte. Gainera, ekainak 1etatik hasi gintzan istorioak igotzen egunez egun osatzen joaten ginen informazio pilula txikiak emanez, gure jarraitzaileengan intriga eta jakin-mina eragiteko helburuarekin.



Era berean, bulegoetako jaiegun eta ordutegi bereziei buruzko informazioa zabaltzeko erabili ditugu sareak.

Gainera, Anitz osatzen duten erakundeek eta hiru lurraldeetan gure zerbitzuarekin zerikusia duten erakundeek egindako jarduerak argitaratu ditugu gure "istorietan". Beste erakunde eta elkarte batzuekiko lotura gisa jardun dugu eta gure jarraitzaileei zerbitzuarekin lotutako ekitaldi, hitzaldi, prestakuntza eta abarren berri eman diegu. Gure ustez, modu ona izan da hori, ez bakarrik pertsonei hainbat jardueraren berri emateko, baita Berdindu zerbitzua ikusarazteko ere.





Sareetan egindako argitalpen eta izandako aktibitate guztiaz gain, bi iragarki zabaldu ziren zerbitzuari buruz bai Instagram-en baita Facebook-en. Bi iragarkietan (euskaraz eta gaztelaniaz), Berdindu zerbitzuaren azken helburua azaldu eta jendea harremanetan jartzera bultzatzen zen, sexu-genero aniztasunari dagokionez premia-egoeran egonez gero.




Hala ere, argitalpen hori guk egin ez dugunez, ezin ditugu jakin iragarki horren norainokoari eta banaketari buruzko estatistikak edo zenbakiak, ez eta iragarkiaren egokitasunari eta errendimenduari buruzkoak ere. Horren ordez, aurrerago ikusiko dugun bezala, beren mugikorretan iragarkia ikusten zuten pertsonen iruzkinetatik eratorritako kritika eta mezu negatibo zaparrada batean murgilduta ikusi dugu gure burua.

ESTATISTIKAK

Oharra: Ez gara profesionalak, sare sozialen gai zabalari buruz ikasten ari gara, baiian hurrengo grafikoetan ikus daitekeen bezala aurrera goazela esan dezakegu.


Facebook

Jarraitzaile gutxien daukagun sarea da. Hala ere, argitalpenak igotzen hasi ginenetik, mailaz-maila jarraitzaile gehiago lortzen joan gara. Urte hasieran 49 genituen, eta 66-rekin itxi dugu urtea. Esan beharra dago, zaila egiten ari zaigula zenbaki hori gora egitea, geroz eta jende gutxiago erabiltzen baitu sare hau.



Twitter

Twitter da, maila kuantitatiboan erantzun gutxien ematen ari den sarea. Baliteke sareetan dugun gaitasunetik eta helburutik gehien urruntzen dena izatea, eztabaidan oinarritutako sare bat bada, eta Eusko Jaurlaritzako zerbitzu publiko gisa, ezin dugu hori publikoki egin, beraz argitaratzen duguna eskas geratzen da.





Sare honetan aktibo egotea, eztabaidan murgildua egotea suposatzen du, eta honek ez gaitu zerbitzu bezala interesatzen. Hala ere, ezin ditugu kontrolatu sortzen diren eztabaida horietan egiten dizkiguten aipamenak, eta, hain zuzen ere, gure kontua sexu-genero aniztasunarekin lotutako hainbat gertakariri buruzko kritiken tweet batzuetan aipatu dela esan dezakegu.


Hala eta guztiz ere, uste dugu interesgarria izan litekeela bertan geratzea, jarraitzen dugun eta jarraitzen diguten pertsonen eguneroko albiste eta kezken berri izateko eta, horrela, eskaeran oinarritutako arreta hobea emateko.

Urtea 90 jarraitzaileekin hasi genuen, eta 27 kontu berriei iristen bukatu dugu, guztira 117, 9 kontuko irismena izanda jarraitutako kontu bakoitzeko (3).

Instagram

Instagram da, zalantzarik gabe, ondoen funtzionatzen duena, eta elkarreragin handia izan dugu bai kolektiboekin, bai ondoren bulegoetara joan diren pertsonekin. Oraingoz esan dezakegu zerbitzua gehien zabaltzen ari den sarea dela.

la egunero pertsona edo erakunde berriak jarraitzen gaituzte. Ikus dezakegu nola jarraituen zenbakia nekez handitu arren, jarraitzaileak esponentzialki hazten ari direla etengabe.




Gaur egun 679 kontu jarraitzen gaituzte, iaz itxi genuen 402 aldera. Jakina, sare horretan gehiago lan egin dugulako da, baita sare horrek eskaintzen dizkigun aukeretara egokitzen ikasi dugulako ere.

INTZIDENTZIAK

Asko ez diren arren, esan behar da sareak gauza batzuetarako nahiko leku etsaia direla, eta horren barruan, sareak eta haien anonimotasuna erabiltzea erabaki duten pertsonen gorabeheraren bat edo beste izan dugu, gorroto-diskurtsoak, informazioaren desitxuratzek, kexak eta abar helarazteko.

Jarraian, Berdinduk 2023ko maiatzaren 6an zerbitzua sustatzeko egin zuen iragarpenaren ondoren iritsi zitzaizkigun iruzkin eta mezuen benetako adibideren bat eranstean dugu:





Hashmi Tawhar
Sólo vaticano gora

Mercedes Fernández Martínez
Pero esto que es , una broma de mal gusto ?

Me gusta Responder Ocultar [Enviar mensaje](#) 16 h

Ainhoa Aha
Como que identidad de género? En que le vais a ayudar? Me vais a explicar que si visto como un chico soy un chico? A ver si acabamos con el maldito género de una vez y dejamos a las personas ser personas sin importar su sexo.

Saca la 6 Mariano!! Te mandamos un besazo grande!!!

Kexa edo baieztapen okerrak eman diren egoeretan, pertsonak eta/edo erakundea horiek, gure zerbitzura bideratu ditugu gertatutakoa argitzeko asmoz. Orokorrean funtzionatu du, nahiz eta profil batzuek sarea euren buruak husteko baino ez duten erabiltzen, inongo informazioa lortzeko asmorik gabe, eta horren aurrean ezin dugu askoz gehiago egin. Hala ere, orokorrean balorazio positiboa egiten dugu sareekin egiten ari garen lanean, nahiz eta zaila izaten ari den.

Nabarmendu nahi dugu, halaber, sare sozialetatik etorritako "kontsulta-bidea" kategorian jasotako arreten kopurua handitu egin dela; guztira, 41 arreta jaso dira, eta iaz, berriz, 12.

Orain arte, zerbait propioa argitaratu dugu hileroko eta astero beste elkarte edo erakunde batzuen argitalpenak partekatu ditugu. Horrek guztiak, sareetan aktibo gaudela islatzen du eta sareen atzean pertsonak daudela adierazten du eta hori garrantzitsua da gure atzetik datozen pertsona guztientzat.

Gainera, gero eta gehiago dira hurbiletik jarraitzen gaituzten pertsona eta elkarteak eta informazio eguneratua daukate, baita gurekin harremanetan jartzeko modu azkarra ere. Egun ohikoa eta beharrezkoa den zerbait delarik.

Horretan lanean jarraituko dugu, komunitatea hazten laguntzeko zabalkundea emanez.